

SENIDE BI

INTZAK gabea gozaturik usten dituen lur eta landareak gozamen aundiagoz indar ditezen, egiten du ager aldi eder atsegingarriya eguzkiyak sortaldetik, dizdirantazko printza ureztatuz jira guztiya osakiro apaindurik.

Garai berean esnaturik, mugitzen dira egazti aundi eta chikiak, kirkir eta beste gañuntzeko basapistiyak, ongi-etorri pozkidatsu bat, ezkerak emanaz egiteko, bakoitzak bere izkuntza motan.

¿Eta zer esango degu loriakgatik? Illunabarrak biltzen dituen bezela motostuetan, zabaltzen ditu eguzkiyak intza malkuak chukatuaz, lorea guztiyetan likurta gozoaz, michirrikak egazka joštallu, joštallu eta pollikiro, batetik bestera ibilli ditezen.

¿Zer aundiyak diran eguzkiyaren egintza miraritsuak!

Bañan chandakakuak nola baitiran lurdi ontako gauza guztiyak, Jaungoikuak eman ziyon laguntzat, beti nekapean egon etzediñ senide bat, ezagutzen dana illargiyaren izenarekiñ.

Au da gabaz, egunazko eguzkiyaren egintza guztiyen zaitzalletzat egiten dubena, izar talde aundiyaren laguntza naikidatsuan. Ala, badiruri arratsalde erdiyan illargiyak bere agerkera egiten dubenian, zer-bait albiste-rekin datorkiyola bere senideari, edo esaten diyola, gaur arratsean lotaratzen zeranean, emango dizu nere izartaldeak gabosde, edo *serenata* zure egintza ederraren ordañetan ondorengo itz neur-tu oekiñ.

Eguzkiyak egin du
oraindaño argi,
dizdiratzen dijuaz
belardiyan ar'bi,
¿begira zer garbi...!
dijuazen bordaruntz
eun-en bat ardi.

orra isildu sa-si šošuak,,
lotaratuak daude ušuak
nola bordako ardi gaišuak.

Irudiz izan arren
luze dana labur,
udarako egunak
eman digu amur,
¡aiñ gošo ta šamur...!
non illunabarturik
egin digun agur.

Illargiyak nola daukan bere laguntzat izartaldea, gisa eder eta atsegintsuz diosoltzen du bere senide eguzki maite zoragarriya, eta onek, lotaratu bañan len, agintzen diye bere mendeko chori, eta pišti kantari guztiyai gurtu ditzatela kantatuaz bere senide illargiya, eta guztiyen zaitzalle Ama Andre Mariya, otoizturik urrengo eguna ere goi garbiroki ager dezaten. Agintza aundi onen bitartez, igotzen dira choriyak bakoitza bere arbasta aukeratueta, non asten diran, pipirripika entzuten zayelarik (au nik diyot) ondorengo lototz moldaera au.

Maitaroz gurtu zagun
denok illargiya,
zeren dan bide lagun
atsegingarriya,
kutsurikan gabeko
gutzizko garbiya,
da eguzki ederran
ordezko argiya,
ta bera zaitzen dagon
Ama Andre Mariya.

Au da, išpillutzat senide arterako artu bear dan erakusgaya, (da esatia) aserrerek gabe, elkarrekiko eginkisunak zuzen egin bear dirala. Ausardi aundiya izan det gisa ontan gauz eder miraritsu oyen izenak erabiltziakin, bañan fiyo naiz senide almentsu, kupitsu oyek, barkatuko diratela guztiya. Nik nerez, nai nuke beintzat, eta ala gerta dedilla.

JUAN IGNACIO URANGA.